

**EBAZPENA, KUDEAKETA EKONOMIKOAREN ZUZENDARIARENA, UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IKASLEAK ESKOLATZEKO IKASKETA-BEKA ETA -LAGUNTZEI BURUZKO 2021-2022 IKASTURTEKO EBAZPENEN AKATSAK ZUZENTZEKOA.**

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikulua, eta dagoeneko indargabetuta dagoen Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 105.2 artikulua, honako hau ezartzen du: "Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak".

Berrikusi dira, 2021eko abenduaren 1eko eta 30eko ebazpenak, Hezkuntzako Sailburuaren 2021eko uztailaren 13ko Aginduaren babesean ebatzi zirenak, unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko ikasketa-beka eta -laguntzetarako deialdia egiten duena 2021-2022 ikasturtean; bestalde, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzen txostenak ikusita, akats materialak edo egitezkoak daudela egiaztatu da, eta zuzendu egin behar direla

Horrenbestez, aipatu araudia eta aplikagarria den gainerako legedi orokorra kontuan hartuta, eta eman zaizkidan eskumenak baliatuz, honako hau

EBAZTEN DUT:

2021-2022 ikasturterako unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko bekei eta ikasketa-laguntzei buruzko 2021eko abenduaren 1eko eta 30eko ebazpenetan antzemandako akats materialak edo egitezkoak zuzentzea, eta 65.985,00 € ordaintzea, akatsak zuzendu ondoren sortutako aldeengatik, Eranskinean zehazten diren datuen arabera.

RESOLUCIÓN DE LA DIRECTORA DE GESTIÓN ECONÓMICA DE CORRECCIÓN DE ERRORES DE LAS RESOLUCIONES DE BECAS Y AYUDAS AL ESTUDIO PARA LA ESCOLARIZACIÓN DE ESTUDIANTES DE NIVELES NO UNIVERSITARIOS PARA EL CURSO ACADÉMICO 2021-2022.

El artículo 109.2 de la *Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas*, en idénticos términos que el artículo 105.2 de la derogada *Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común*, establece que "*Las Administraciones Públicas podrán, asimismo, rectificar en cualquier momento, de oficio o a instancia de los interesados, los errores materiales, de hecho o aritméticos existentes en sus actos*".

Revisadas las Resoluciones de 1 y 30 de diciembre de 2021, resueltas al amparo de la Orden de 13 de julio de 2021, de la Consejera de Educación, por la que se convocan becas y ayudas al estudio para la escolarización de estudiantes de niveles no universitarios, en el curso 2021-2022, se constata, a la vista de los informes de las Delegaciones Territoriales de Educación, la existencia de errores materiales o de hecho que deben ser subsanados.

En su virtud, vista la normativa citada y demás de general y concordante aplicación, y en virtud de las atribuciones que me han sido conferidas

RESUELVO:

Corregir los errores materiales o de hecho, detectados en las resoluciones de 1 y 30 de diciembre de 2021, de becas y ayudas al estudio para la escolarización de estudiantes de niveles no universitarios para el curso académico 2021-2022, y abonar 65.985,00 € por la diferencias generadas tras la corrección de errores, según los datos reflejados en el Anexo.

**ANE URKIOLA ALUSTIZA
KUDEAKETA EKONOMIKOAREN ZUZENDARIA**